

## Fitchek “egonkorrera” hobetu du Kutxabanken rating ikuspuntua

- Nazioarteko rating agentziak ikuspuntua “negatibotik” “egonkorrera” igoarazi du euskal Bankuari buruz egin duen azken txostenean
- Kutxabanken kaudimena goretsi du agentziak, egoera okerrenei aurre egiteko duen sendotasunarekin batera

**2021eko otsailaren 26an.** Merkatuan ziurgabetasuna nagusi den testuinguruan, Fitch nazioarteko kalifikazio agentziak Kutxabanken rating ikuspuntua hobetu egin du, eta “negatibo” izatetik “egonkorrera” igoarazi du. Euskal Bankuari buruz egin duen azken txostenean, agentziak gainerako rating guztiak berretsi dizkio eta, beraz, espainiar finantza-sistemako onenen artean jarraitzen dute.

Bere agirian, Fitchek nabarmentzen du egungoa baino egoera askoz okerragoak ere bereganatzeko gaitasuna duela finantza Taldearen kapitalak. Oinarriko baldintzetan, bere aktiboen kalitatearen gaineko presioa neurritzakoa izango dela irizten dio, Taldearen arrisku profil txikiarengatik, norbanakoentzako hipoteketan oinarritua.

Kutxabanken bilakaerari buruz ematen dituen argudioetan, Fitchek positibo irizten dio bere aktiboen arriskuak izan duen hoberako joera, inguruko erakundeek baino zalantzazko aktibo eta kapitalarekiko aktibo gatazkatsu gutxiago baititu.

Euskal Taldea 2015az geroztik etengabe joan da bere maileguen-kalifikazioak hobetzen, eta horrek, epe ertainean erregulazioko-eskakizun berriei aurre egiteko finantzazioa behar izango balu, egoera abantailatsuan jartzen du handizkako merkatuen aurrean. Hain zuzen ere, 2019. urte amaieran egin zuen ‘Non Preferred Zor Seniorren’ 500 millioi euroko jaulkipenak, antzeko jaulkipenek baino kotizazio hobea du gaur egun.

Rating agentziek eginiko aintzatespen honekin batera, erregulatzailleek eta ikuskatzaileek balorazio positiboak egin dituzte Kutxabanken arrisku-profilari eta negozioaren ebazgarritasunari buruz. Europako Banku Zentralak alorreko SREP eskakizun txikiena egiten dio; Europako Banka Agintaritzaren azken gardentasun ekitaldiak Estatuko erakundeen arteko kaudimen onena eman dio, seigarren urtez jarraian; eta abenduan, % 17,1eko MREL eskakizunak, Estatuko eta Europako finantza sistemaren buruan kokatu zuen euskal Bankua.